
Bilera mota: Ezohiko Udal Osoko Bilkura.

Data: 2014-6-30 (astelehena)

Ordua: arratsaldeko 19:00etan.

Lekua: Udaletxeko Areto Nagusia

Erreferentzia: E -14-03

Honen bitartez eta alkate jaunaren aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ezohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

Ezkio-Itsaso, 2014ko ekainaren 26a

Idazkari-kontuhartzailea

AZTERGAI

ZERRENDA

- 1.- Azken sesioko akta onartzea.
- 2.- Alkatearen ebazpenen berri ematea.
- 3.- Ezkio-Itsasoko Herri-eskolan matrikulatzeagatik diru-laguntzen arautegia onartzea.
- 4.- 2013 ekitaldiko kontu orokorraren behin betiko onarpena.
- 5.- Etxez-etxeko laguntza zerbitzuaren inguruan Foru Aldundiarekin sinatu beharreko Hitzarmena onartzea.
- 6.- Ezkio-Itsasoko Udalerriko Euskararen Plan Estrategikoa onartzea.
- 7.- Herri baratzen Ordenantzei haserako onarpena ematea.
- 8.- Sexu askapenerako nazioarteko eguna dela eta adierazpen instituzionala onartzea.
- 9.- Galdera erreguak.

.....//.....

1-E-14-03: EZOHICO UDAL OSOKO BILKURA

2014KO EKAINAREN 30KO EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

Ezkio-Itsason, bi mila hamalauko ekainaren hogeitamarrean.

Egun honetako arratsaldeko 19:00ak direnean, Udaletxeko Areto Nagusian Udal Plenoa biltzen da, Garikoitz Aiesta Etxaniz alkatearen lehendakaritzapean, lehenengo deialdian eta alde zaurretik eta behar den eran Udalkide guztiei igorri zaien eguneko Aztergai Zerrendaren arabera.

Batzarreratzen dira honako Udalkide hauek:

- Mikel Igartua Anduaga (EIK).
- Joseba Etxezarreta Estala (EIK).
- Eneko Zabaleta Lasa (EIK).
- Ruth Idiakez Alberi (EIK).
- Ander Unzurrunzaga Idiakez (EIK).
- Lourdes Lasa Arbilla (EIK).

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria desenkusatzuz: inor ez.

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria ez dute desenkusatzuz:

- Inor ez.

Idazkari, Udaleko idazkari-kontuhartzaileak egiten du:

- Gotzon Goikoetxea Cestona.

.....//.....

2-E-14-03: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

Segidan eta Presidentearen baimenez, nik, idazkari honek, Batzarra egin daitekeela adierazten dut, zeren Udalarari dagozkion eta osatzen duten Udalkide gehienak bertaratu baitira, horrela apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46-2 artikuluan eta azaroak 28ko 2.568/1.986 Erret Dekretuz onarturiko Toki Erakundeen Antolakuntza, Iharduera eta Legezko Jaurbidearen Erregelamenduaren 90.1 artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz.

.....//.....

3-E-14-03: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

**LEHEN PUNTUA:
AZKEN SESIOKO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak aditzera ematen du 2014-4-28ko Ez-Ohiko Saioko akta onartu behar dela.

Aho batez onartzen da.

**BIGARREN PUNTUA:
ALKATEAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Udal Entitateen funtzionamendu eta antolaketa arautzen duen 2568/1986 Erregalamenduko 42. artikulua xedatutakoaren arabera, alkate jaunak azken Udal Osoko Bilkuratik aurrera eman dituen ebazpenen berri ematen dio Udal Osoko Bilkurari.

Ebazpenak: R-14-078/R-14-116 (zerrenda osoa aurkezten da).

**HIRUGARREN PUNTUA:
EZKIO-ITSASOKO HERRI-ESKOLAN MATRIKULATZEAGATIK DIRU-
LAGUNTZEN ARAUTEGIA ONARTZEA.**

Ikusirik Ezkio-Itsason herri-eskola bat egiteko proiektua dagoela, eta horretarako beharrezkoa dela gutxiengo ume kopuru bat matrikulatzea, Ezkio-Itsasoko Udalak diru-laguntza batzu ezartzea erabaki du, bertan matrikulatzen diren haurren gurasoei diruz laguntzeko matrikulazio gastuei aurre egiteko.

Ikusirik 2014ko aurrekontuetan aurreikusten dela gastu partida hau, 6.000 eurokoa, orain laguntza hauek emateko arautegi bat jartzea eztabaidatzen eta bozkatzen da.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutakoen aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGOA :

Ezkio-Itsasoko Herri-eskolan matrikulatzen dituzten haurren gurasoei dirulaguntzak emateko arautegia onartzea, testu honekin :

.....//.....

4-E-14-03: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

**EZKIO-ITSASOKO HERRI ESKOLAN MATRIKULATZEAGATIK EMAN BEHARREKO
DIRULAGUNTZEN ARAUTEGIA**

<p>El Ayuntamiento de Ezkio – Itsaso ha recibido el visto bueno de la Delgación de Gipuzkoa del Departamento de Educación del Gobierno Vasco para poner en marcha la Herri – Eskola.</p> <p>Es notorio las dudas que existen entre los/las padres y madres del municipio a la hora de matricular a sus hijos en la herri – eskola de Ezkio – Itsaso.</p> <p>Con vistas al curso 2014 – 2015, es necesario que se matriculen un mínimo de 10 niños para la puesta en marcha de la herri – eskola, todos ellos del grupo de infantil. En la actualidad se cumple dicho requisito del Departamento de Educación, pero es voluntad del Ayuntamiento fijar y, a poder ser, reforzar dicho mínimo con vistas tanto al curso 2014 – 2015 como al futuro.</p> <p>Ante ello, y teniendo en cuenta la importancia y bondades que ofrece el disponer de una escuela en el municipio, el Ayuntamiento entiende que es su labor el ayudar a mantener y reforzar dicho servicio.</p> <p>Entre las medidas a adoptar, se ha decidido, con vistas al curso 2014 – 2015, subvencionar a los padres/madres que matriculen a sus hijos en la herri – eskola de Ezkio-Itsaso, de la siguiente forma:</p> <p align="center">NORMATIVA:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Los beneficiarios serán los padres y las madres que matriculen a sus hijos en la herri – eskola de Ezkio-Itsaso en el curso 2014 - 2015, teniendo en cuenta que: <ul style="list-style-type: none"> o Se garantiza una ayuda económica hasta la matriculación de un total de 10 niños/as, independientemente de si son del municipio o de fuera del mismo; si en el curso 2014-2015 se matriculasen un número superior a 10 niños, a subvención se otorgará a los 10 primeros niños/as que se hayan apuntado. - La ayuda económica que se otorga conlleva la aceptación del siguiente compromiso por parte de los padres/madres: los niños seguirán matriculados en la herri-eskola de Ezkio-Itsaso hasta la finalización del curso escolar 2014-2015, para asegurar la continuidad de la herri-eskola. (junto con la solicitud de subvención, se presentará declaración jurada de cumplimiento de 	<p>Ezkio - Itsasoko udalak herri eskola bat egiteko baimena jaso du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Gipuzkoako Deleagaritzaren aldetik.</p> <p>Jakinekkoa da udalerriko guraso batzuren artean badagoela halako kezka edo zalantza, beren umeak Ezkio-Itsasoko herri eskolan matrikulatzeko.</p> <p>2014 - 2015 ikasturtera begira, herri - eskola martxan hasteko gutxienez 10 haur behar dira, denak haur hezkuntzakoak. Gaur egun, betetzen da Hezkuntza Sailak ezarritako gutxiengo kopuru hori, baina Udalaren nahia da gutxiengo kopuru hori finkatu, eta ahal bada, handitzea, bai 2014-2015 ikasturtera begira, baita etorkizunera ere.</p> <p>Arazo horren aurrean, beti ere herri-eskola batek herriarentzat suposatzen duen onura kontuan izanda, Udalak ulertzen du dagokion ahalegina egin behar duela zerbitzua mantendu eta bere kasuan indartzeko.</p> <p>Hartu beharreko neurrien artean, erabaki da hasiera batean 2014-2015 ikasturtera begira, Ezkio - Itsasoko herri - eskolan matrikulatzen dituzten haurren gurasoei dirulaguntzak banatzea, era honetan:</p> <p align="center">ARAUTEGIA:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ezkio - Itsasoko herri -eskolan 2014 - 2015 ikasturtean matrikulatzen dituzten haurren gurasoak izango dira onuradunak, beti ere honako hau kontuan hartuta: <ul style="list-style-type: none"> o Herriko nahiz kanpokoak izan, 10 haur bitarte bermatzen da dirulaguntza; 2014-2015 ikasturtean zehar 10 haur baino gehiago matrikulatuko balira, Ezkio-Itsasoko herri-eskolarako izena eman duten lehen 10 haurrentzako izango da. - Ematen den dirulaguntzak, matrikulatuta dauden haurren gurasoentzat konpromezu hau dakar: haurrak Ezkio - Itsasoko herri-eskolan 2014-2015 ikasturte amaierarte mantentzea, herri - eskolaren jarraipena bermatzeko. (eskaerarekin batera, konpromezu hau beteko dela esaten den zinpeko aitortpena aurkeztu beharko da).
--	--

.....//.....

5-E-14-03: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

<p>dicha obligación).</p> <ul style="list-style-type: none"> - La ayuda económica que otorga el Ayuntamiento de Ezkio-Itsaso por cada niño matriculado es de 600 euros, repartido en dos plazos: <ul style="list-style-type: none"> o El primer plazo en diciembre. o El segundo plazo al término del curso, acreditando el cumplimiento de todas las condiciones. - Queda claro que, por el momento, la ayuda únicamente abarca el curso 2014 – 2015. Así, se ha previsto una partida en los presupuestos del ejercicio 2014 de 6.000 euros. El Ayuntamiento, en función del desarrollo del problema, adoptará las decisiones pertinentes para cursos futuros. - Una vez recibida la subvención, si no se cumpliese alguna de las condiciones impuestas, se procederá a la devolución de las ayudas. - El plazo para presentar la solicitud de ayudas finaliza el 30 de julio de 2014 (miércoles). 	<ul style="list-style-type: none"> - Ezkio-Itsaso Udalak haur bakoitzeko ematen duen dirulaguntza 600 eurokoa izango da, eta bi zatitan banatuko da: <ul style="list-style-type: none"> o 1. zatia abenduan. o 2. zatia ikasturte amaieran, baldintza guztiak bete direla ziurtatu ondoren. - Garbi geratu den bezala, dirulaguntza momentuz 2014 - 2015 ikasturterako bermatzen da, eta horretarako 2014. urteko aurrekontuan aurreikusi da gastuei aurre egiteko dagokion kontsignazioa, 6.000 eurokoa; Udalak, arazo honen eboluzioaren arabera, hurrengo urteetan hartuko ditu dagozkion erabakiak. - Behin eta dirulaguntza jaso, jarritako baldintzaren bat beteko ez balitz, jasotako dirulaguntza itzuli egin beharko da. - Dirulaguntza eskaera aurkezteko epea, 2014ko uztailaren 30an (asteazkena) amaitzen da.
--	---

Ezkio-Itsaso, 2014ko ekainaren 30a

**LAUGARREN PUNTUA:
2013KO EKITALDIKO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO
ONARPENA.**

Ikusirik Udal honetako Kontu Batzorde Bereziak, 2014ko maiatzaren 26an eginiko bileran bere oneritzia eman ziola 2013ko ekitaldiko aurrekontuaren Kontu orokorrari.

Ikusirik Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 63.3 artikuluan xedatutakoa jarraituz, hamabost eguneko epean jendaurrean egon zela txosten hori, inongo erreklamazio edo oharrik aurkeztu gabe epe horretan.

.....//.....

6-E-14-03: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

Kontutan hartuta 21/2003 Foru Arauko 63.3 artikuluan xedatutakoa, 2013ko Aurrekontuaren Kontu Orokorra Udal Batzarraren esku geratzen da bere behin-betiko onarpena eman diezaion.

Udal batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez bere osotasunean onartu du

LEHENENGOA: 2013ko Udal Aurrekontuaren Kontu Orokorra behin-betiko izaeraz onartzea.

BIGARRENA: Udal honek, Kontu Orokorren berri emango dio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, bere erreglamendu propioek ezartzen dutenaren arabera.

BOSTGARREN PUNTUA:

ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN INGURUAN FORU ALDUNDIAREKIN SINATU BEHARREKO HITZARMENA ONARTZEA.

Eusko Legebiltzarraren 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko gizarte zerbitzuen sistema integratu bat antolatzen eta egituratzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan herritar guztiei zerbitzu horiek jasotzeko eskubidea bermatzeko.

Lege horren 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua lehen mailako gizarte zerbitzuen barruan sartzen da eta zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalen egitekoa da.

Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen arabera zerbitzu horiek udal eskumenekoak badira ere, udalek ezin dute zerbitzu horien finantzaketa bere gain hartu, ez baita gauzatu legearen bigarren eta hirugarren xedapen iragankorretan aurreikusitako finantza doiketa, zeinaren helburua baita Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoa hornitu ahal izateko finantzaketa nahikoa bermatzea.

Bi administrazioek, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta Etxeko Laguntza Zerbitzuen erabiltzaileen arreta hobetzearren, egoki ikusten dute beste lankidetzak hitzarmen bat egitea 2005ean sinatu zen eta gero 2013ko abenduaren 31 arte luzatu zen lankidetzak hitzarmenean jasotako zenbait alderdi eguneratzeko, besteak beste, hitzarmenaren xedea, zerbitzuen estaldura-helburuak eta tarifak, eta zerbitzuen finantzaketa sistema. Horretarako, beheko klausula hauek ezartzen dituzte.

Bi administrazioek uste dutela hitzarmenaren estipulazioak ez direla aldatu behar 2014. eta 2015. urteetan zehar udalei Gipuzkoako Aldundiak finantziario sistema beteko duela bermatzeko.

.....//.....

7-E-14-03: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta EZKIO-ITSASOKo Udalaren arteko hitzarmen honen xedea da udalean mendekotasuna duten pertsoneri ematen zaien Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako baldintzak zehaztea.

Udal batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez bere osotasunean onartu du

LEHENA: Ezkio-Itsasoko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ezkio-Itsason mendekotasuna duten pertsoneri ematen zaien Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako baldintzak zehazten duen hitzarmena onartzea.

BIGARRENA: Onarpen honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraztea,

HIRUGARRENA: Alkatea ahalmentzea aipatu hitzarmena sinatzeko.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN
ETA EZKIO-ITSASOKO UDALAREN
ARTEKO HITZARMENA, MENDEKOEN
ARRETARAKO ETXEKO LAGUNTZA
ZERBITZUA FINANTZATZEKO.

CONVENIO DE COLABORACION ENTRE
LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA Y
EL AYUNTAMIENTO DE EZKIO-ITSASO
PARA LA FINANCIACION DEL SERVICIO
DE AYUDA A DOMICILIO PARA
PERSONAS DEPENDIENTES.

Donostian, 2014ko ekainaren 30a

ELKARTU DIRA

REUNIDOS

Alde batetik,

De una parte,

ANDER RODRIGUEZ LEJARZA jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatua, egintza honetarako Aldundiaren legezko ordezkari gisa ari dena, Diputatuen Kontseiluak 2014ko martxoaren 25eko bileran emaniko berriazko baimenarekin.

Don ANDER RODRIGUEZ LEJARZA en calidad de Diputado Foral del Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa y en su representación, expresamente autorizado para este acto por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 25 marzo de 2014.

Eta bestetik,

Y de otra parte,

GARIKOITZ AIESTA ETXANIZ jauna, Ezkio-Itsasoko Udalareko Alkate gisa ari dena, Udal Batzarrak 2014ko ekainaren 30ko ez-ohiko bileran emaniko berriazko baimenarekin.

GARIKOITZ AIESTA ETXANIZ, en calidad de Alcalde del Ayuntamiento de Ezkio-Itsaso y en su representación, expresamente autorizado para este acto por acuerdo Plenario Municipal de 30 de junio de 2014.

AZALTZEN DUTE

EXPONEN

I.- Eusko Legebiltzarraren 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak,

I.- Que la ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de servicios sociales, ordena

.....//.....

8-E-14-03: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

erakunde publikoen ardurapeko gizarte zerbitzuen sistema integratu bat antolatzen eta egituratzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan herritar guztiei zerbitzu horiek jasotzeko eskubidea bermatzeko.

II.- Lege horren 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua lehen mailako gizarte zerbitzuen barruan sartzen da eta zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalen egitekoa da.

III. Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen arabera zerbitzu horiek udal eskumenekoak badira ere, udalek ezin dute zerbitzu horien finantzaketa bere gain hartu, ez baita gauzatu legearen bigarren eta hirugarren xedapen iragankorretan aurreikusitako finantza doiketa, zeinaren helburua baita Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoa hornitu ahal izateko finantzaketa nahikoa bermatzea.

IV.- Bi administrazioek, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileen arreta hobetzearren, egoki ikusten dute beste lankidetzaz hitzarmen bat egitea 2005ean sinatu zen eta gero 2013ko abenduaren 31 arte luzatu zen lankidetzaz hitzarmenean jasotako zenbait alderdi eguneratzeko, besteak beste, hitzarmenaren xedea, zerbitzuaren estaldura-helburuak eta tarifak, eta zerbitzuaren finantzaketa sistema. Horretarako, beheko klausula hauek ezartzen dituzte.

V.- Bi administrazioek uste dutela hitzarmenaren estipulazioak ez direla aldatu behar 2014. eta 2015. urteetan zehar udalei Gipuzkoako Aldundiak finantziario sistema beteko duela bermatzeko.

Hori guztia ondorengo klausulei jarraituz,

KLAUSULAK

y estructura un sistema integrado de servicios sociales de responsabilidad pública, a fin de garantizar en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el derecho subjetivo de toda la ciudadanía a dichos servicios.

II.- Que en el artículo 22.1 de la referida Ley se incluye el Servicio de Ayuda a Domicilio dentro de los servicios sociales de atención primaria cuya provisión según lo dispuesto en el artículo 42.4 es competencia de los ayuntamientos.

III.- Que si bien, en virtud de la Ley 12/2008 de Servicios Sociales la prestación de este servicio recae en el ámbito competencial municipal, su financiación no puede ser asumida por el ayuntamiento al no haberse hecho efectivo el reajuste financiero previsto en las disposiciones transitorias segunda y tercera de la mencionada Ley, cuyo fin es garantizar la suficiencia financiera para la provisión del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

IV.- Que ambas administraciones, con la finalidad de mejorar la eficacia de la gestión pública y la atención a las personas usuarias del Servicio de Ayuda a Domicilio, estiman procedente formalizar un nuevo convenio de colaboración en el que se actualicen tanto el objeto del convenio como los objetivos de cobertura del servicio y las tarifas por la prestación del servicio, así como el sistema de financiación del servicio contemplados en el convenio de colaboración suscrito en 2005 y prorrogado hasta el 31 de diciembre de 2013.

V.- Que ambas administraciones consideran que las estipulaciones del convenio deben permanecer inalterables y sin modificación durante los años 2014 y 2015 con el fin de garantizar a los ayuntamientos el cumplimiento por la Diputación Foral del sistema de financiación. Todo ello con arreglo a las siguientes

CLAUSULAS

.....//.....

9-E-14-03: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

LEHENA.- Xedea

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta EZKIO-ITSASOko Udalaren arteko hitzarmen honen xedea da udalean mendekotasuna duten pertsonen ematen zaien Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako baldintzak zehaztea.

BIGARRENA.- Zerbitzu estaldura eta baimendutako ordu kopurua.

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, mendekotasuna duten pertsonentzako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren gehieneko ordu kopurua izango da Gizarte Politikako Departamentuak udal horretarako 2012an baimendutakoa, hau da, 3.096 ordu.

Hitzarmen honetako seigarren klausulan adierazitakoaren ondorioetarako, baimendutako gehieneko ordu kopuruaren % 80 2.477 ordu dira.

HIRUGARRENA.- Tarifa/orduak gehienez

Hau da seigarren klausulak arautzen duen foru finantzaziorako oinarri den mendekoen arretarako etxeko laguntza zerbitzuaren gehienezko tarifa orduko:

- Orduko tarifa astegunetan: 18,87 €
- Orduko tarifa igande eta jaiegunetan: 22,66 €

Udalak emandako zerbitzuaren prezio/ordua gehienezko tarifa baino txikiagoa balitz, foru finantzazioa kalkulatzeko, udalak onartutako prezio/orduaren zenbatekoa hartuko litzateke oinarri.

Bi kasuetan, ondorio ekonomikoak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko dira.

PRIMERA.- Objeto.

Es objeto del presente convenio entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de EZKIO-ITSASO, definir las condiciones para la financiación foral del Servicio de Ayuda a Domicilio prestado en el municipio a personas calificadas como dependientes.

SEGUNDA.- Cobertura del Servicio y número de horas autorizadas.

El número máximo de horas del Servicio de Ayuda a Domicilio para personas dependientes durante la vigencia del presente convenio, será el autorizado para 2012 para el municipio por el Departamento de Política Social, establecido en 3.096.

A efectos de lo señalado en la cláusula sexta del presente convenio, el 80% del número máximo de horas autorizadas ascienden a 2.477.

TERCERA.- Cuantía máxima de la tarifa/hora

La cuantía de la tarifa máxima por hora del servicio de ayuda a domicilio para la atención a personas dependientes que servirá de base para la determinación de la financiación foral regulada en la cláusula sexta, es:

- Tarifa hora laborable: 18,87 €
- Tarifa hora domingos y festivos: 22,66 €

Si el precio/hora del servicio prestado por el ayuntamiento fuera inferior a la tarifa máxima, para el cálculo de la financiación foral se tomará como referencia el importe del precio/hora aprobado por el ayuntamiento.

En ambos supuestos los efectos económicos se aplicarán desde 1 de enero de 2014

.....//.....

10-E-14-03: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

Gehienezko tarifa horiek urtero eguneratuko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko KPIaren igoeraren arabera. Gipuzkoako Foru Aldundiak urteko lehen hilabetearen barruan jakinaraziko dio Udalari eguneraketa horretatik ateratzen den tarifa.

LAUGARRENA.- Zerbitzua arautzea.

Udalak etxeko laguntzaren zerbitzua arautzen duen udal erregelamendua Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legeak ezartzen duen eskumen banaketara moldatu beharko du; horrek ez du berekin ekarriko zerbitzuari buruzko apartatuek baieztatzen dituen eta baztertzen dituen jarduerak aldatzea, ezta onuradunak, eskuratzeko prozedurak eta erabiltzaileen partaidetza ekonomikoak ere.

BOSGARRENA.- Ordaintzeko prozedura.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru hilean behin ordainduko du seigarren klausulan ezarritako zerbitzuaren foru finantzaketarako aldagaiak ezarrita ateratzen den zenbatekoa, Udalak zazpigarren klausulan adierazitako informazioa bidali eta hilabeteke epean.

SEIGARRENA.- Foru finantzaketa.

Gipuzkoako Foru Aldundiak zerbitzuari emango dion finantzaketa zehazteko, aldagai hauek hartuko dira kontuan:

a) Hiruhileko fakturazioa:

Mendekotasuna duten pertsonen emandako zerbitzu orduen kopurua eta hirugarren klausulan zehaztutako zerbitzuaren tarifa biderkatuta ateratzen den emaitza da.

Estas tarifas máximas se actualizarán anualmente con el aumento correspondiente a la aplicación del IPC del territorio histórico de Gipuzkoa. La tarifa resultante será comunicada al Ayuntamiento por la Diputación Foral de Gipuzkoa dentro del primer mes del año.

CUARTA.- Regulación del Servicio.

El Ayuntamiento deberá adecuar el vigente Reglamento municipal regulador del servicio de ayuda a domicilio a la distribución competencial de la Ley 12/2008 de Servicios Sociales, sin que dicha adecuación altere las actuaciones incluidas y excluidas en los apartados referidos el servicio, las personas destinatarias, el procedimiento de acceso y la participación económica de las personas usuarias.

QUINTA.- Procedimiento de abono.

La Diputación Foral de Gipuzkoa abonará con carácter trimestral, en el plazo de un mes desde la remisión por parte del ayuntamiento de la información señalada en la cláusula séptima, el importe resultante de la aplicación de las variables para la financiación foral del servicio establecidas en la cláusula sexta.

SEXTA.- Financiación foral.

Con objeto de determinar la financiación del servicio por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa se tendrán en cuenta las siguientes variables:

a) Facturación trimestral:

Se trata del producto entre número de horas de servicio prestadas a personas en situación de dependencia, multiplicado por la tarifa del servicio señalado en la cláusula tercera.

.....//.....

11-E-14-03: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

b) Baterako ordainketa:

Mendekotasuna duten erabiltzaileek egindako ekarpenen batura da.

c) Foru finantzaketaren portzentajea:

Udalak baimendu diren orduen % 80 burutzen duen arte, Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko du:

1.- 3.000 biztanle baino gehiagoko udalei, hiruhileko fakturazioaren eta erabiltzaileen ordainketa partekatua arteko aldearen % 85.

2.- 3.000 biztanle baino gutxiagoko udalei, hiruhileko fakturazioaren eta erabiltzaileen ordainketa partekatua arteko aldearen % 90.

Klausula honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, 2012ko urtarrilaren 1eko errolda hartuko da erreferentzia gisa.

Udalak burututako orduak gainditzen badute baimendutako orduen % 80a, Gipuzkoako Foru Aldundiak % 80 horretatik aurrerako orduak (baimendutako orduen % 100eko mugara arte) dagokien fakturazioaren eta erabiltzaileen ordainketa partekatua arteko aldearen % 100 ordainduko du.

ZAZPIGARRENA.- Informazio sistema.

Udalak Foru Aldundiari behar diren datu guztiak eman behar dizkio, gutxienez prezioa eta zerbitzuaren kostua, pertsonako zerbitzu orduak eta erabiltzaileen baterako ordainketa. Helburu hauekin:

b) Copago:

Es la suma de las aportaciones realizadas por las personas usuarias dependientes.

c) Porcentaje de cofinanciación foral:

Hasta que el ayuntamiento llegue a ejecutar el 80% de las horas autorizadas, la Diputación Foral de Gipuzkoa abonará:

1.- A los ayuntamientos de más de 3.000 habitantes, el 85% de la diferencia entre la facturación trimestral y el copago de las personas usuarias.

2.- A los ayuntamientos de menos de 3.000 habitantes, el 90% de la diferencia entre la facturación trimestral y el copago de las personas usuarias.

A efectos de lo previsto esta cláusula se tomará como referencia el censo a 1 de enero de 2012.

Cuando el ayuntamiento supere el 80% de ejecución de las horas autorizadas, la Diputación Foral de Gipuzkoa abonará el 100% de la diferencia entre la facturación correspondiente a las horas que excedan del citado 80%, hasta el límite de las horas autorizadas referenciadas en la cláusula segunda, y el copago de las personas usuarias.

SÉPTIMA.- Sistema de Información.

El Ayuntamiento deberá facilitar a la Diputación Foral todos los datos que sean necesarios y como mínimo el precio y coste del servicio, el detalle por persona del número de horas de servicio y el copago de las personas usuarias. Todo ello a fin de:

.....//.....

1.- Zerbitzuaren likidazioa egin ahal izatea.

2.- Zerbitzuaren egoera ezagutzea, mendekoei eta beste talde batzuei emandako arretari dagokionak eta estali gabeko beharrei dagokienez.

3.- IMSERSORI pertsonen datuak erraztea, SISAADek (Autonomiaren eta mendekotasunaren arretarako sistemaren informazio sistema) ezarritako baldintzei jarraikiz, araudi honek zehazten duen moduan:

- SSI/2371/2013 Agindua, abenduaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baita Autonomiaren eta mendekotasunaren arretarako sistemaren informazio sistema (EAO 302, 2013/12/18, 1. sek., 100833 or.)
- 2013ko abenduaren 27ko 1051/2013 Foru Dekretua, mendekotasun egoeran dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Laguntza Sustatzeko 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen prestazio ekonomikoak arautzekoa (EAO 313, 2013/12/31, 1. sek., 107128 or.)

Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak *Extranet SAD* informatika tresna emango du.

Tresna hori gorabehera, Gipuzkoako Foru Aldundiak udalaren esku bertsio hobea jartzen badu, udalak hori erabiliko du.

Informazioa bidaltzeko gehieneko epea

1.- Poder realizar la liquidación correspondiente del servicio.

2.- Conocer la situación del servicio, en cuanto a la atención prestada a personas dependientes y a otros colectivos, así como las posibles necesidades no cubiertas.

3.- Poder facilitar al IMSERSO los datos referidos a las personas atendidas, de acuerdo con las especificaciones definidas en el SISAAD (Sistema de Información del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia), definidos mediante las siguientes referencias normativas:

- Orden SSI/2371/2013, de 17 de diciembre, por la que se regula el Sistema de Información del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia (BOE Núm. 302, 18/12/2013, Sec. I. Pág. 100833)
- Real Decreto 1051/2013, de 27 de diciembre, por el que se regulan las prestaciones del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia, establecidas en la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia (BOE Núm. 313, 31/12/2013 Sec. I. Pág. 107128)

A tal efecto, la Diputación Foral de Gipuzkoa facilitará la herramienta informática necesaria, conocida como *Extranet SAD*.

Sin perjuicio de la utilización de dicha herramienta, en la medida que la Diputación Foral de Gipuzkoa ponga a disposición del Ayuntamiento una versión mejorada de la misma, el Ayuntamiento adoptará su utilización.

Los plazos máximos para el envío de la

.....//.....

13-E-14-03: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

hauek izango dira:

- a) Lehenengo hiruhilekoa: Apirilaren 30a
- b) Bigarren hiruhilekoa: Uztailaren 31
- c) Hirugarren hiruhilekoa: Urriaren 31
- d) Laugarren hiruhilekoa: urtarrilaren 31

ZORTZIGARRENA.- Batzordea

Jarraipen

Hitzartutako baldintzen jarraipena egiteko, aldeek adostu dute ordezkariak parekideko batzorde bat eratzea.

BEDERATZIGARRENA.- Amaitzeko eta iraungitzeko arrazoiak

Hitzarmena amaitzeko edo iraungitzeko ondorengo arrazoiakoren bat gertatu behar da:

- a) Bi aldeen artean ados jartzea.
- b) Aldeetako batek hitzarmenari uko egitea, horrelakoetan, beste aldeari jakinarazi beharko dio hitzarmena amaitzeko aurreikusitako data baino bi hilabete lehenago, gutxienez.
- c) Aldeek hitzarmenean aurreikusitako betebeharrak eta baldintzak ez betetzea.

HAMARGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen den egun berean sartuko da indarrean, eragin ekonomikoa urtarrilaren 1etik duelarik; eta indarraldia 2014ko abenduaren 31 artekoa izango da. Hitzarmenaren epea amaitzean besterik gabe luzatuzat joko da beste urte natural bateko aldiatarako, eta betiere nahikoa eta egokia den aurrekontu xedapena badago luzatutako ekitaldirako.

información serán los siguientes:

- a) primer trimestre: 30 de abril
- b) segundo trimestre: 31 de julio
- c) tercer trimestre: 31 de octubre
- d) cuarto trimestre: 31 de enero

OCTAVA.- Comisión de seguimiento

Para analizar el seguimiento de las condiciones pactadas, las partes firmantes acuerdan que se podrá constituir una comisión en la que ambas estarán representadas de manera paritaria.

NOVENA.- Causas de resolución y extinción

Para la resolución o extinción del convenio deberá producirse alguna de las siguientes causas:

- a) El mutuo acuerdo entre las partes firmantes.
- b) La renuncia al convenio de una de las partes que deberá notificarlo a la otra con una antelación mínima de dos meses a la fecha prevista de resolución
- c) El incumplimiento de las partes de las obligaciones y condiciones previstas en el convenio.

DÉCIMA.- Vigencia del convenio.

El presente convenio entrará en vigor el día de su firma, con efectos económicos desde el 1 de enero y su vigencia se extenderá hasta el 31 de diciembre de 2014. El convenio se entenderá tácitamente prorrogado a su finalización por períodos de 1 año natural, siempre que exista consignación presupuestaria y adecuada para el ejercicio prorrogado.

.....//.....

Eta adierazitako guztia onartzen dutela frogatzeko, biek izenpetzen dute dokumentu hau, bi aletan eta ondorio bakarrarekin, izenburuan adierazitako tokian eta egunean.

Y en prueba de conformidad con cuanto antecede, se firma el presente documento en duplicado ejemplar y a un solo efecto, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

EZKIO-ITSASOKO UDALA
EL AYUNTAMIENTO DE EZKIO-ITSASO

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
POR LA DIPUTACION FORAL DE
GIPUZKOA

Garikoitz AUESTA ETXANIZ

Ander RODRIGUEZ LEJARZA

**SEIGARREN PUNTUA:
EZKIO-ITSASOKO UDALERRIKO EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA
ONARTZEA.**

Kontutan izanik beharrezkoa dela 2014-2017 urte bitarteko Udalaren euskararen erabilerarako plan estrategikoa onartzea, orain arte indarrean egon den Planaren epea gainditu delako.

Kontutan izanik Plan Estrategikoa eguneratuta edukitzea beharrezkoa dela Eusko Jaurlaritzak bultzatzen dituen diru laguntza programa ezberdinetara aurkezteko.

Kontutan izanik UEMAk Ezkio-Itsasoko Udalaren Euskararen erabilerarako plan estrategikoa idatzi duela.

Udal batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez bere osotasunean onartu du

.....//.....

15-E-14-03: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

LEHENA: Ezkio-Itsasoko Udalaren Euskararen erabilerarako Plan Estrategikoa onartzea, 2014-2017 epe muga bitartekoa.

BIGARRENA: Onarpen honen berri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzara bidaltzea, haiek ere beren onarpena eman dezaten.

**ZAZPIGARREN PUNTUA:
HERRI BARATZEN ORDENANTZEI HASERAKO ONARPENA EMATEA.**

Ikusirik herri baratzak arautzeko ordenantza zirriborroa idatzi dela, eta komeni dela baratzak martxan jartzeko haserako onarpena ematea, Udal batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez bere osotasunean onartu du

LEHENA.- Herri Baratzak arautuko dituen Ordenantza hasera batez onartzea.

BIGARRENA.- Ordenantza proiektua jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesatuek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ditzaten.

HIRUGARRENA.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ez balitz, behin betikotzat onartuta joko da orain aurkezten den proiektua.

**ZORTZIGARREN PUNTUA:
SEXU ASKAPENERAKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA ADIERAZPEN
INSTITUZIONALA ONARTZEA.**

Urola Garaiko Mankomunitateko Berdintasun Saitetik adierazpen instituzionala adostu da Udal ezberdinetako Batzarretan eztabaidatu eta onartzeko. Honela dio adierazpenak:

EKAINAK 28a. SEXU ASKAPENERAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Ekainak 28an, Sexu Askapenerako Nazioarteko Eguna ospatzen dugu. Egun honetan pertsona orok gure sexualitatea askastun osoz bizitzeko eskubidea aldarrikatu eta ospatzen dugu. Bereziki transgenero, lesbiana eta homosexualen kolektiboek gure elkartasuna eta miresmena adierazi nahi diegu. Talde hauek burututako aldarrikapenak eta aurrerapausoak, giza eskubideetan oinarritutako gizarteak sustatzen dituzte, giza garapenerako ezinbestekoak dira, eta printzipio demokratikoekin bat datozen gizarte ereduen motorrak dira. Guzti honegatik gure esker beroenak luzatu nahi dizkiogu LGTBQ kolektiboari eta bide batez beraien erronkara batu.

Gure sexualitatearen orientazioa edo gure sexualitatea praktikatzeko era, egungo gizartearen antolakuntzaren erdigunean dagoen gaia da, izan ere sexualitateaz aritzen garenean gure nortasunaren eraikitze prozesuaz ari gara hitz egiten.

Lesbianismoa, homosexualitatea, eta azken finean sexualitatearen aniztasuna aldarrikatzen duten kolektiboek, normaltasunaren pean ematen den sexualitatearen mugak zabaltzen dituzte, eta azken finean sexualitatea oro ar aberasten dute.

.....//.....

16-E-14-03: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

Transfobia, lesbofobia eta homofobia gure burua zalantzan jartzeari diogun beldurraren seinale dira, eta konturatu gabe gure egunerokotasunean erabiltzen ditugun mekanismoak dira. Norbait iraintzeko edo era ezezkorrean “marikoi” hitza erabiltzen dugunean, homofobia erabiltzen ari gara taldean nortasun jakin bat ezartzeko, hau da gizonezkoen jokaerari estereotipo matxistei lotutako portaera ezartzen diogu; eta berdina gertatzen ari da “marimutil” hitza erabiltzen dugunean. Egunero ematen diren intentsitate baxuko, eta normalizat hartzen ditugun indarkeria mota hauek, indarkeria maila handiagoen jatorrian daude.

Transfobia, lesbofobia eta homofobia, indarkeria matxista mota bat da, izan ere gure jokaeraren kontrola dute helburu, hau da, gizonok eta emakumeok bete behar ditugun arauak finkatzen dituzte, zeharkatu ezin ditugun mugak direlarik.

Indarkeria matxista mota hauek, egunero ematen den sufrimendu askoren oinarrian daude, baina hain normalizatuak dauzkagu transfobia, lesbofobia eta homofobia ez gairela konturatzen. Egoera honen adibide argiena eskoletan ematen den jazarpenaren sakoneko errealitatean topa dezakegu, 2012 urtean Estatu Espainolean egin zen ikerketa batek agerian utzi zien, LGBTQ gazteen artean %56a indarkeria matxista pairatu zutela, gizonak bakarrik hartzen baditugu kontuan %65,7 dira indarkeria matxista pairatu dutenak, eta ikerketa honen lagin osoa hartzen badugu berriro, ikusiko dugu %17 bere buruaz beste egitea pentsatu duela. Datu hauek eskolako jazarpenaren arazoaren portzentai handia suposatzen dute, eta baita ere nerabeen buru hiltzen kopuruan.

Garratzitsua da azpimarratzea, hiri handietatik urrun dauden herrietan, zailtasun gehiago daudela sexualitatea era askean bizia ahal izateko LGBTQ kolektiboentzako, eta migrazio askoren oinarrian dagoen gatazka bat dela.

Nahiz eta asko izan sexu askapenerako eragile sozialak lortutako aurrerapen eta eskubideak, datu hauek agerian uzten dute bide luzea daukagula egiteke oraindik.

Sexua, generoa eta sexualitatea bakoitzaren nortasunaren elementu oso garrantzitsuak dira, eta askatasun osoz egin beharreko aukera bat izan behar du. Jokaera jakin batzuen inposaketa sozialak, alde batetik maskulinitate eta feminitate eredu estereotipatu eta sexistak gauzatzen ditu, eta bestetik jokaera jakin horietatik ateratzen diren guztiengan gorrotoa eta indarkeria sustatzen ditu.

Guzti hau kontuan izanda, hurrengo konpromisoak hartzen ditugu:

- Berdintasun politika publikoen gauzatze lanetan askapen sexualak txertatzea.
- Gure herrietan gertatzen diren indarkeria matxista mota hauek, hau da, transfobia, lesbofobia eta homofobia indarkeria kasuak jasotzeko tresnak jarri, eta arretarako errekursoak aktibatu.
- Herritargoa kontzientziatzeko eta sensibilizatzeko kanpainak egin.
- Sexu askapenean aritzen diren elkarteei lagundu eta gure babeska eskaini, bereziki LGBTQ elkarreak eta elkarte feministak.

Bukatzeko gure herrietako bizilagunak gonbidatu nahi ditugu askatasun osoz bizi dezaten beraien aniztasun sexuala, eta berriro ere, ekainak 28a Sexu Askapenerako Nazioarteko eguna ospatu ahal izateko lan egin duten pertsona guztiei gure miresmena, eta elkartasun osoa helarazi nahi diegu.

Azkenik, Urola Garaiko eskualdean ekainak 28a ospatzeko gauzatuko diren ekizentzen parte hartzeko deia luzatu nahi diegu gure herriko biztanle orori.

.....//.....

17-E-14-03: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

Bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin onartzen da Adierazpen Instituzionala.

**BEDERATZIGARREN PUNTUA:
GALDERA ERREGUAK**

Ez dago.

Beterik deialdiaren helburua, 19:30ak direnean, eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, alkate jaunak Udal Osoko Bilkura bukatutzat ematen du. Nik, idazkari bezala, akta hau idazten dut.

Ezkio-Itsaso, 2014ko ekainaren 30a

O.E.
ALKATEA

IDAZKARIA

.....//.....

18-E-14-03: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA